

ITZULTZAILE ESKOLA ZABALTZEAN

Donostian, 1980-10-6

Fr. L. Villasante

Jaunak: Zinez uste dut benetan handia dela gaurko eguna euskararentzat. Poz hartzeko eguna. Gaur martxan jartzen den ekintza honek —Itzultzaile Eskolak— ezin neurtuzko ondorio mesedegarriak ekar ditzakeela euskararentzat.

Zorionik beroenak eta eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiet Eskola hau sortzen lagundu duten guztiei.

* * *

Euskaldunok mende berriak atzerapen handi batekin, mozkeria handi batekin harrapatu gaitu, hori ez dago ukatzerik. Aje asko, hutsune nabari asko ditu gure euskarak. Gaurko hizkuntza landu aberatsekin konparatzen badugu, ahulezia horretaz laster ohartzen gara. Mila sail eta arlotan ez da beste horiek bezain baliagarri. Ez da gai. Ez da erreminta trebe.

Eta euskarak dituen istilu, katramila eta problema latzen artean, beharbada latzena itzulpenena da, hots, traduzioarena. Erdal hizkuntzetatik euskarara itzultzearena baitipat, zeren beste aldera, euskaratik erdarara, errazago egiten baitira itzulpenok.

Gaur, berriz, herri eta hizkuntzen artean har-eman estuak daudelarik, euskararen ahulezia hau sendatzeko ahalegin guztiak ipini behar ditugula pentsatu du Euskaltzaindiak. Hortik Eskola honen lehen pentsua.

Oroit gaitezen Lizardiren bertsoaz:

“Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa”.

Bai. Euskara tresna trebe eta egoki bihurtu behar dugu nora nahiko eta edozertarako. Itzulpenetarako ere bai.

Zergatik da hain zaila erdaretatik euskarara zenbait gauza itzultzea? Lehenbiziko arrazoina begien bistan dago. Axular-ek jadanik esan zuen: “zeren euskara eta bertze hizkuntzak diferent baitira”.

Euskara hizkuntzen artean bakarti aurkitzen delarik, horrek nahi-eta-ez itzulpen lana zail bihurtzen du. Hori ez dago ukatzerik. Haatik, ez dut uste horrekin dena esana dagoenik. Alemana eta gaztelania ez dira etorki bereko hizkuntzak, guztiz bestelakoak dira, berdin inglesa eta frantsesa, inglesa eta japonesa edo errusoa etab., eta halarik ere erruz eta aski erraz egiten dira itzulpenak hizkuntza horietan batetik bestera.

Beste arrazoi bat ere aipa daiteke: euskara ez dagoela oraindik aski bateratua eta normalizatua, eta ez ditugula behar bezalako tresnak, hots, hiztegiak, gramatikak etab. Hori ere egia da, noski, eta arrazoi handia. Horrek ere asko zailtzen du itzultzailearen lana. Erdal-euskal eta euskal-erdal hiztegi behar bezalakoak, bi hizkuntzen idiomatismoez ongi hornituak, eskas ditugu. Oztopo handia dela hau, bistan da.

Gainera, gizarte maila askotan eta gizonaren kultur eremu eta ekintza sail askotan euskara ez da bat ere edo oso guti erabilia izan gaur artio. Arrazoi bat gehiago, eta ez ttipia, itzulpenak egitea zail gerta dadin.

Baina arrazoi horien pisua den gutiena ere ukatu gabe, bada hemen, ene ustez, besterik ere: gu geuk, euskaldunok, geure mendean hain zuzen, gauzak diren baino zailago bihurtu ditugula.

Kresala-ren hitzaurrean hara zer zioen Domingo Agirrek 1906. urtean: "Askori entzun deusat, eta milla aldiz bai, oso neketsua dala guk egiten ditugun gauzak irakurtea, errezago ipini bearrean, dana ipini dogula geroago ta gatxago, ta ortik datorrela euskerazko libururik iñok ez ikusi gura izatea".

Nik badakit euskaltzaleek nola erantzun izan dieten honelako ahapaldiei: alfer-nagien aitzakiak direla horiek esanez. Lan edo neke pixka bat hartu nahi ez dutenen aitzakiak direla.

Baina beharbada sinpleegia da erantzun hau. Besteri errua boteaz ez ditugu geure korapiloak askatuko. Ez ote da hobe kritikarien kritikan egon daitekeen egia puska edo zuzena kontutan hartzea? Orduan, eta orduan bakarrik, jarriko gara bide zuzenean.

Gure literatura xumeak, bere xumean, badu adinik aski eta esperientzia-rik aski itzulpen kontuan.

Leizarraga itzultzaile hutsa izan zen. Axular-en liburuan ere itzulpen mordo galanta dago, nahiz eta gehienetan itzulpen soilak ez izan; irazkinez borobilduak, bere irakurleen mailara egokituak eta euskararen idiomatismoez jantziak ematen ditu Axular-ek bere itzulpenak. Dena dela, bide bat da hau ere.

* * *

Iparraldean hainbeste idazle dugu itzulpen bidea hartu zutenak. Harizmendi, Arambillaga, Silvain Pouvreau, Chourio, Haraneder. Duhalderen lana ere itzulpena dela frogaturik dago, nahiz eta hala ez irudi.

Ettxeberri Sarakoa dugu beste etsenplo bat guztiz gogoangarria. Bere obra bi hizkuntzatan egin zuen: euskaraz eta latinez. Euskal testua aldameanean latinera itzulia dakar; eta egia esan, itzulpen lan hori egitea ez zaio, itxuraz, gehiegi kostatzen, perpausak muntatzeko sistema berdin samarra erabiltzen duelako bai hizkuntza batean eta bai bestean.

Hegoaldean ere makina bat itzultzaile izan ditugu joan mendeetan. Hemen kontu osoa ez dago ematerik. Bat bakarra aipatuko dut, Gregorio Arrue, Zarauzko eskola maisua. Itzultzaile profesionala bihurtu zen gure artean. Santuen bizitzeak, liburu aszetikoak etab. erruz itzuli eta argitaratu zituen, gaztelaniatik itzuliak, noski, eta liburu horiek gure herriak gogoz hartzen eta ulertzen zituen.

Interesgarri, ikasgarri eta bai beharrezko ere dela uste dut zahar haien itzulpengintza aztertzea.

Sartaldeko hizkuntza landuetan zabaldurik eta onarturik dagoen prosa egiteko modua onartzen eta erabiltzen zuten haiek euskaraz ere; eta hala batetik bestera aldatzea ez zitzairen hain zaila gertatzen.

Baina gure mendean zer egin dugu? Hertsikeria baten ondorioz, euskara, zekarren bidetik saihestu eta bakar bidetik eraman nahi izan dugu. Baina euskara bakar bidean jartzea ez ote da hilobira bidean jartzea, irteerarik ez dagoen impasse batera hizkuntza eramatea?

Ez dakit. Baina zuek, Eskola honetako ikasle-irakasleok, problema nahasi horietan argi egiten lagundu beharko diguzue.

* * *

Kuestioa da orain bapatean eta supituki bere gordinen azaldu zaigula itzulpenaren problema. Euskarari ofizialtasuna aitortu zaion unean, itzultzaileen eskea heldu da alde orotatik, eta ozta-ozta dago hainbeste eskeri erantzuterik. Itzultzaile guti dago eta gainera itzulpena bera nola egin behar den ez da argi ikusten. Zeregin honi erantzuteko eta oztopo hau gainditzeko, pentsatu du Euzkaltzaindiak noraezekoa zela Itzultzaile Eskola hau sortzea.

Hizkuntza landuetan, gainera, sail desberdin asko eta hizkera berezi asko dago. Ez dira berdinak Administrazio hizkera eta Merkataritzako hizkera, iskribauen eta lege-gizonen hizkera, literario hizkera, irakaskuntzakoak, jakintzakoak. Jakintzak berak zenbat ganbara ez ditu! Eta gero hor dago prentsa eta komunikabideen mundua. Literaturaren barrenean ere zenbat idazmota berezi! Ez da hizkera berdina erabiltzen ipuin batean, teatro lan batean, liturgi ospaketa batean, elaberri batean, saio batean, Eliz gutunetan... Hizkera berezi asko dago, bada, hizkuntza landuen barrunbean.

Euskara mundu aberats eta zabal horretarako trebatu nahi bada, arlo eta sail guzti horien berezitasunaz kontu eduki beharko dugu. Euskarak ere, beste hizkuntzak bezala, sail bakoitzari dagokion hizkera mota beharko du

sortu edo beretakotu. Ezin daitekeena da, deus berezi gabe, dena zaku berean sartu.

Zeregin haundia, eskerga, da, bada, burugainera hartzen duzuen. Ez da, beste eskoletan egin ohi den bezala, ikasia dagoena besteei irakatsi: hori ere bai, noski, baina horretaz gainera, Eskola honek inbestigaziozko alderdi bat beharko du izan, zeren itzulpenaren mundu hau, gure artean, neurri handi batean, aztertu gabe baitago, eta azterpen lan honen gidaritza edo pilotu lana zuek egin beharko duzue baitipat. Euskal itzulpenaren teoria bera egiteko dago oraindik.

Bukatu baino lehen, hitz bat oraino itzulpen lan honek duen garrantziaz: oker ez banaiz, hauxe izango dugu froga harria euskara hizkuntza landuen mailara heldu den ala ez jakiteko. Gaur hizkuntza landuetan erabiltzen diren sailetako lanak euskarara normalki, egoki, erregulariki, eta ez dut esaten errazki baina bai neurritz kanpoko nekerik gabe itzultzea lortzen den egunean, orduan eta orduan bakarrik esan ahalko dugu: oraintxe, zinetan, heldu da euskara beste hizkuntza landuen adinera. Bitartean ez.

Itxaropenez betetzen gaitu, bada, gaurko ospaketa honek. Badakit, bestalde, esku onetan dagoela arazoa.

Zorionak eta eskerrak ematea beste lanik ez zait gelditzen. Zorionak eta eskerrak, euskarak hil edo biziko duen ekintza hau sortzea erabaki dutenei eta bere laguntzaz asmo hori egia bihurtzea posible egin dutenei!

Izenak izendatuki aipatzen ez naiz hasiko. Hala ere, ezin utziak ditut J. San Martin euskaltzaina, Cegasa etxea, Gipuzkoako Diputazioa eta bi Aurrezki Kutxak. Horiek denek gogoz parte hartu ez balute, asmo hau ez zen mamituko. Eskerrak berei.